

2022. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2021eko azaroaren 26an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2021/12/15 239. zk.

ANIMALIAK EUKITEKO ETA BABESTEKO UDAL ZERBITZUEN TASA ARAUTZEN DAUAN ORDENANTZA FISKALA.

1. artikulua - IZAERA ETA OINARRIA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru-Arauaren 21. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa kontutan izanda, udal honek Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuz agindutako animaliak eukiteko eta babesteko udal eskumeneko zerbitzu eta jardueren tasa eskatuko dau ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua - EGITATE EZARGARRIA

Tasa honen egitate ezargarria txakurrak eta laguntasun edo zaintzarako beste animalia batzuen segurtasunaren, osasunaren, osasungarritasunaren eta garbitasunaren baldintzak egiaztatzeko eta betearazteko, animaliak batzeko eta zaintzeko, beharrezko lizentziak eta erregistroak gauzatzeko udal zerbitzu eta jarduera, teknikoa zein administratiboa da. Berariaz tasaren epigrafeetan zehaztutakoak, hain zuzen be.

3. artikulua - SUBJEKTU PASIBOAK

1- Tasa honen subjektu pasiboak dira zerbitzuak eskatu, eragin edo interesa daukien pertsona naturalak edo juridikoak, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan jasotzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, baita, zerbitzu edo jardueraren onuradunak be.

2- Tasaren kudeaketarako xedapenetan bereziki aipatu daitekeenaren kalte barik, honako honeek dira subjektu pasiboak:

- a) Animaliak, identifikatuta egon ala ez egon, jabea euki daukanean: jabea
- b) Adopzinoetan: hartzailea
- c) Zerbitzu edo jarduera eskarietan: eskatzailea edo jabea 101/2004 Dekretuko 10. artikuluko 3 a) kasuan.

4. artikulua - OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTA

1- Epigrafeetan deskribatutako zerbitzu edo jarduera unitate bakotxa gauzatzea da oinarri ezargarria, jagokozan tarifikak edo zenbatekoa ezartzen dauan eran. Hau da, epigrafe bakotxa independentea da.

2- Aurreko artikulutik sortzen diran epigrafe ezberdinetako zenbatekoen batuketa izango da tasaren kuota.

3- Epigrafeak:

	2022 (€)
1- LIZENTZIAK (arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak)	
1.1- Lehen lizentzia eta txartela	46,32
1.2- Lizentziaren barriztapena eta txartela	9,72
1.3- Titularra aldatzea eta txartela	19,47
2- Udal ERREGISTROAn erregistratzea (arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak)	
2.1- Erregistratzea eta txartela	10,30
2.2- Erregistro aldaketak eta txartela	5,16
3- Arriskugarritasunaren BALORAZINOA	
3.1- Arriskugarritasuna baloratzeko txostena	124,05
4- ANIMALIAK BATZEA (A)	
Pertsonal adituaren eta ibilgailu egokituaren joan-etorria, animaliak jasotzeko (baita animalia hilak ere), kasu guztietan. Berdin dio harrapatzeko erarik ez bada egon animalia ezin izan delako aurkitu, edo bere jabea agertu delako animalia batu behar duen zerbitzukoak bertaraino joan diren bitartean, zein abisua baliogabetu bada beste edozein arrazoiengatik:	
4.1- Joan-etorriak jendearentzako ordutegi barruan direnean, hau da: astelehenetik barikura, 9:00-13:00 eta 16:00-19:00. Zapatuetan, 9:00-14:00.	77,42
4.2- Jendearentzako ordutegitik kanpoko joan-etorriak	135,02
4.3- Abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1ean	306,35
4.4- Zerbitzuaren kontratista arduratu behar denean animalia harrapatzen aurretiaz lotuta egon ez delako, aurreko ataletan aurreikusitakoetatik aparte	116,61
5- JASOTAKO ANIMALIEN LEHENENGO AZTERKETA ETA GARBIKETA (B)	
5.1- Desparasitazioa eta bainua zentrora sartzean	60,81
6- IDENTIFIKAZIOAK (C)	
6.1- Behar denean, identifikazioa jartzea zentrora heltzean (AIEOn alta emateko tramiteak ere barruan sartzen dira).	27,61
6.2- Adoptatzen dan katuari identifikazioa jartea	27,61
7 - TXERTOAK (D)	
7.1- txertoa jartzea	26,19
8- OSPITALERATZEA (H)	
8.1- txakurraren ospitalizazioa eguneko	27,91
8.2- katuaren ospitalizazioa eguneko	27,91
8.3- Lan ordutegitik kanpo jasotako animalia batek albaitariaren beharrezana izatea (K)	136,79
9 - MANTENUA (I)	
9.1- Egonaldiko lehen 30 egunetan txakurraren mantenua eguneko	9,10
9.2- Egonaldiko lehen 30 egunetatik aurrera txakurraren mantenua eguneko	8,44
9.3- Egonaldiko lehen 30 egunetan katuaren mantenua eguneko	7,01
9.4- Egonaldiko lehen 30 egunetatik aurrera katuaren mantenua eguneko	6,01
9.5- Beste espezie bateko animaliaaren mantenua eguneko	7,15
10- ADOPZIOAK	
10.1- Jabeak adopzioarako entregatutako animalia onartzea	38,33

10.2- Txakur antzutua adoptatea	188,5
10.3- Txakurra adoptatzea	59,4
10.4- Katu antzutua adoptatzea	121,73
10.5- Katua adoptatzea	59,4
10.6 - Albaitariak egiaztagirak egitea (J)	58,68
11- EUTANASIA (F)	
11.1- eutanasia txakurrei	79,56
11.2- eutanasiak katuei	64,25
12- ERRAUSTEA (G)	
12.1- 45 kg.ra arteko txakurra erraustea	68,69
12.2- 45 kg.tik gorako txakurra erraustea	100,39
12.3- katua erraustea	61,17

5. artikulua - SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Legeetan ezarritako edo nazioarteko itunak aplikatzearen emoitza arauetan ezarritako hobariak edo salbuespenak baino ez dira emongo.

6.artikulua - SORTZAPENA

Tasea, kasuz-kasu, zerbitzua edo jarduera hasten danean, egiten danean edo eskatzen danean sortzen da.

7.artikulua - KUDEAKETA ARAUAK

1- Jarduerak egiteko eta zerbitzuak emoteko erak dakarre tasa kudeatzeko era. Horrela lizentzia, erregistro eta balorazio jarduerak udal administrazioak zuzenean egindakoak dira eta eurei lotutako epigrafeak 1, 2 eta 3 dira.

2- Beste epigrafeetan deskribatutako zerbitzuak zerbitzu kontratu bidez emoten dauz udalak, kontratistak gauzatuta eta bere zentroan.

3- Interesdunak arriskutsuak izan daitekezan txakurrak eukiteko lizentzia, lizentzia barriztapenak, animaliaren eskualdatzeak, arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal-erregistroan erregistratzea eta bertako aldaketak eskatzean Berh@z bulegoan, tasaren autolikidazioa be egin beharko dau.

Autolikidazioa ordaintzeko epea *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga Ordenantza* orokorreko 9. artikuluko 2. a) atalean ezarritako 10 egun izango da. Epea ordaindu barik igaro ezkerro derrigorrezko bilketa prozedura aplikatzea ekarriko dau.

4- 4. epigrafetik 12. epigrafera arteko zerbitzuak bata bestetik independenteak dira eta emondako guztien batuketa izango da batutako txakurraren jabeak txakurra

eskuratzean, baten batek adoptatzean edo eutanasia egiteko eta erretzeko eskatzean ordaindu beharko dauan tasa.

Sortutako tasaren aurre-likidazinoa egingo du udal kontratisteak animalia jabeak, hartzaileak edo zerbitzu eskatzaileak ordaindu daion. Aurre-likidazinoan ordenantza honetako epigrafeen kodeak eta deskribapenak argi jarrita egongo dira.

Kontratatari aurre-likidazinoaren zenbatekoa ordaintzeko epea *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga Ordenantza* orokorreko 9. artikuluko 2. a) atalean autolikidazinarako ezarrita dagozan 10 egunak izango da. Epea ordaindu barik igaro ezkerro, kontratisteak udalari jakinarazo eta agiriak entregatuta, epe amaieraren hurrengo egunean derrigorrezko bilketa prozedura aplikatzea ekarriko dau.

Udaleko tributu kudeaketa sailak aurre-likidazinoak egiaztatuta tasaren behin-betiko kitapenak egin daitez aplikatutako epigrafe edota zenbatekoak ordenantzakoekaz bat ez badatoz. Kasu horretan kitapen zuzenez jakinarazoko jako tasa zorra subjektu pasiboari.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetako jarduera eta zerbitzuen interpretazio edo zehaztasunetarako honako arau honeek izango dira oinarriak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua.
- Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza
- Bermeon jaube bako eta kaleko animalien batze eta zaintze zerbitzurako kontratua